

# Errealitateari aurrez aurre begiratzen dioten zazpi filmek osatzen dute Zinemira

IRENE ELORZA GEREÑO

Zinemirak, euskal zinemari berariaz eskainitako sailak, fikziozko eta ez-fikziozko zazpi film erakutsiko ditu aurtengo edizioan. Horietako lau, Zinemaldian mundu-estrenaldia izango dutenez, Euskal Zinemaren Irizar Sarirako hautagai izango dira, Zinemaldiko beste sail batzuetan dauden beste sei lanekin batera. Horrela, guztira hamar ekoizpen lehiatuko dira 20.000 euroko saria lortzeko filmaren ekoizlearentzat edo ekoizleentzat.

Donostia Zinemaldiak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak antolatzen dute Zinemira urtero. Irizar eta EITB dira babesleak, eta Euskadiko Filmategiaren, EPE/APV eta IBAIA ekoizle-elkarteen eta Zineuskadiren laguntza du.

Guztira, hamazazpi filmek –hamahiru film luze eta lau film laburrek– osatzen dute Donostia Zinemaldian 70. edizioko euskal ekoizpenen ordezkariak, eta Sail Ofizialean, New Directorsen, Zabaltegi-Tabakaleran, Nesten, Zinemiran eta Euskal Zinemaren Galan eta EITB Galan banatuta egongo dira.

*El vasco* Argentinarekin egindako koprodukzioaren mundu-estrenaldia Zinemira inauguratuko du, gaur. Jabi Elortegik zuzendu du Joseba Usabiaga, Itziar Aizpuru eta Eduardo Blancok antzeztutako komedia dramatikoak.


Izaskun Arandia ekoizle eta gidogileak bere lehen film luzea zuzendu du: *My Way Out*. Dokumental horrek Londresen kokatutako eta pertsona transentzako *My Way Out* klubaren historia kontatzen du artxiboko irudien eta elkarrizketen bidez.

Xuban Intxaustik *Bakearen Aldeko Koordinakundea-Gesto por la Paz* kolektibo bakezalearen hiru hamarkadako ibilbidean sakontzen du *Gesto* lanean, artxiboko irudien eta egungo adierazpenen bidez.

*Karpeta Urdinak* filmean, Ander Iriarte zinemagileak ikerlan bat abiarazten du. Kontatzen den istorioak bere aitak komisaria batean torturak jasan zituela du abiapuntu. 1960tik 2014ra bitartean Euskal Herrian izandako tortura eta tratu txarrak ikeritzeko proiektuaren emaitzak ezagutarazten ditu egileak.

Irailaren 20an, Euskal Zinemaren Gala izango da Victoria Eugenia Antzokian. Bertan, *Gelditasuna ekaitzean* Alberto Gastesiren lehen lana estreinatuko da, Loreto Mauleon eta Iñigo Gastesi protagonista dituen amodiozko istorio bat.

Egun bat geroago, toki berean, EITB Gala ospatuko da. Bertan, *Kepe Junkera berpiztu* aurkeztuko da, 2018an iktus bat jasan zuen musikari bilbotarraren osatze prozesuaren eta hark utzitako ondarearen inguruko film luze dokumentala, Fermin Aiok zuzendua.



Euskal Zinemaren Irizar Sarirako lehiari izango dira, baita ere, Sail Ofizialean jada iragarritako bi film –Mikel Gurrearen *Suro*, Fernando Franco-

ren *La consagración de la primavera*–, New Directors saileko pelikula bat –Maria Elorzaren *A los libros y a las mujeres canto*– eta Fermin Mu-

guruzaren *Black is Beltza II: Ainhoa*, Belodromoan estreinatuko dena.

Beste euskal ekoizpen batzuk ere izango dira Zinemaldian, izan Nest izeneko zinema ikasleen film laburren lehiaketan, edo proiektu-fasean.

*Cinco lobitos* entzutetsua izango da Zinemiraren amaiera filma aurtengo. Lehiaketaz kanpo dago Alauda Ruiz de Azua zuzendariaren lehen film luzea.

## Zinemira Saria

Txema Areizagarentzat izango da aurtengo Zinemira Saria. Iaz zendu zen elektrikari buru beteranoaren lana aitortu nahi du Donostia Zinemaldiak eta, haren bitartez, teknikariek osatzen duten kolektibo anonimoaren lan isila bezain garrantzitsua.

Areizaga Argilun Iluminación enpresa gipuzkoarreko gerentea izan zen, eta Antxon Eceizaren eskutik hasi zuen bere ibilbidea zinemagintzan, *Ke arteko egunak* filmean. Handik urtebetera, Areizagak Argilun sortu zuen, ehun bat film luzetan parte hartuz; besteak beste, *Vacas*, *Lasa y Zabala*, *Negociador*, *Loreak*, *Ocho apellidos vascos*, *Amama*, *Oreina*, *El hijo del acordeonista*, *70 binladens*, *Nora*, *La trinchera infinita* eta *Irati*.

Iaz, Kimuak programak jaso zuen Zinemira Saria. Aurretik, Sara Bilbao, Jose Maria Lara, Ramon Agirre, Julia Juaniz eta Ramon Barea izan dira saridunak, besteak beste.

## EL VASCO

# Aurrera egiten hasi eta atzera arazo zaharrak topatu

IRENE ELORZA GEREÑO

Euskal Telebistako telesail esanguratsuenetakoa batzuen zuzendaria da Jabi Elortegi (Bermeo, Bizkaia, 1969). *Goenkale*, *Balbemendi*, *Aitarren etxea*, *Goiazaren*, *Ihesaldia* eta *Beti mugan* lanek bere sinadura daramate. Horiez gain, fikziozko film luze bat, *Zorion perfektua*, aurkeztu zuen 2008ko Zinemaldian. Hamalau urte geroago, *El vasco* filma jendaurrean erakutsiko du estreinakoz, gaur, Zinemira Saila abiatuz.

Disziplinari ezberdinak izan arren, hizkuntza berdina dela eta eroso sentitzen da Elortegi telebistan zein zinemian. Ez hainbeste filma pantaila handian erakutsi bezperetan. Urduri dagoela aitortu arren, estrenaldiaz gozatzeko asmo irmoarekin dator Donostiara. “Film txiki bat egitea zen asmoa, *indie* film bat, eta lana eginda dago”, adierazi du zuzendariak.

Txikia bai baina *El vasco* ez da izan bat batean egindako lana. Hainbat urte tiradera batean gordeta egon

zen ideia harik eta Zinemaldiak Argentinako ekoizleekin antolatutako topaketa batean bultzada jaso zuen arte. “Irakurri orduko, ekoizleak baietza eman zigun eta proiektua abiatu egin zen”, dio Jabi Elortegik, “sekulako abiapuntua izan zen guretzat”.

## Bi munduren artean

Bermeon eta Argentinako Cordoban eta Mendozan filmatu zen *El vasco*, iaz. Arazoak atzean utzi eta bizimodu hobea baten bila abiatzen den Mikelen gorabeherak erakusten ditu filmak. Mikelek (Joseba Usabiaga) bizimoduz aldatzea erabaki eta senide urrun baten gonbidapena onartuko du Argentinara joan eta bertan bizitzen jartzeko. Baina berehala ohartuko da bere osaba Chelo (Eduardo Blanco) fantasiatsu samarra dela, eta ezin diola ezer eskaini. Horrez gainera, dena korapilatuta egingo da Amuma Dolores (Itziar Aizpuru) hamar urteko lozorrorik esnatzen denean eta gazte euskalduna Juanitorenkin, bere anaia zenarekin, nahasten duelako. Hortik

aurrera, dena hankaz gora jarriko da, ez bakarrik Mikelen bizitza, baita familia eta herri osoarena ere.

Ekoizpen hispano-argentinaren honen filmaketa gozamen izan zen lantaldearentzat. “Cordoban eta Mendozan filmatu genuenean hainbat bizipen gertatu ziren eta gidoian sartu genituen”, azaldu du zuzendariak. “Villa Marian euskal komunitate indartsua dago eta baita Euskal Etxea ere; handik iritsi ginen Morrison herria, eta iritsi orduko pentsatu genuen huraxe zela behar genuen lekua”.

Aktoreei dagokionez, Elortegik garbi zuen Joseba Usabiagak gorpuztuko zuela protagonista. “Ez zen pertsonaia erraza, komedia eraman behar zuelako baina barre egin barik, barrutik sufritzen”, dio zuzendariak. Amamaren kasuan, are argiago zuen nork egingo zuen filmeko beste paper nagusia. “Gure zinemaren ez dago Itziar Aizpuru baino hobetarik”, aitortu du.

Argentinako aktore taldearen parte-hartzeari dagokionez, apustu segurua egin zuen produkzioak. Batetik,



Jabi Elortegi zuzendari bizkaitarra.

ULISES PROUST

Eduardo Blanco ezaguna aukeratu zuten, eta, bestetik, Inés Efrón eta Laura Oliva aukeratu zituzten zain-tzailearen eta izebaren paperak egiteko. Honela azaltzen du Elortegik. “Inés Efrón Zinemaldian ezagutu genuen eta gidolariak hain zuen gustuko, ezen pertsonaia idazten ari zela ‘Inés’ izena jarri zion, nahiz eta ez jakin berak interpretatuko zuen ala ez. Laura Oliva aurkikuntza izan da, antzerki eta telebista asko egin du eta berarekin dena oso ondo joan da”.

Figurante multzoa ere oso aipagarria da lan honetan. Cordoba eta Mendozako aktore munduan dabilen aktoreez gain, Euskal Etxearekin

lotura duen jende andanak parte hartu zuen proiektuan. “Denek daukate harremana euskal munduarekin eta oso gustura ibili dira lanean eta parte hartzen, orduak eta orduak”.

Soinu-banda da filmaren beste protagonistetako bat. Jabi Elortegi eta Fernando Velázquez musikagileak aspaldiko lagunak dira. “Erraza da berarekin lan egitea, Fernandok ulertzen nau eta badaki zer egin”, dio zuzendari bizkaitarrak. Bilboko Orkestra Sinfonikoarekin grabatutako musikak presentzia irabazten doa filmean zehar eta kontakizunarekin batera hazten doa, emozioak borobilduz.